



EUSKAL KULTURAREN BATZARREA

EUSKALGINTZARAKO KONFEDERAKUNDEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, EKONOMIA, ENERGI
ETA GIZARTIA
DEPARTAMENTU ENERGIJA, JUSTIZIA,
ECONOMIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

12 JUN. 1995

Eusko Jaurlaritza Zuzentza Saila Bazkunen Errolda
Andia Kalea 11 esk.
20004 DONOSTIA

SARRERA	IRTEERA
Zk. 605	Zk. -

Jose Jabier Iñigo Jaunak, AS/G/03945/1993 Errolda zenbakia duen EUSKAL KULTURAREN BATZARREA-EKB Elkartearen Idazkari nagusia,

HONAKO HAU ZIURTATZEN DU:

1995eko apirilaren zazpiko Batzar Orokorrean, alde zuzetik Araudiaren arabera deitua, besteak beste ondoko erabakiak hartu zirela:

LEHENA: Batzorde Zuzentzailea berritzea, azaltzen diren karguak betetzeko behar den gehiengoak ondoko pertsonak aukeratuak izan direlarik:

LEHENDAKARIA:	Paulo Agirrebaltzategi Kortabarria	NAN 72.560.270
IDAZKARIA:	Jose Jabier Iñigo Egizurain	NAN 15.977.951
DIRU ARDURADUNA:	Brigida Arrue Larrarte	NAN 15.965.492
BATZORDEKIDEAK:	J. Inazio Marko Juanikorena	NAN 15.954.717
	Xabier Ugalde Gulas	NAN 14.949.925
	Sagrario Aleman Astiz	NAN 15.781.046
	Juan Mari Mendizabal Alberdi	NAN 15.349.821
	Maialen Ezkerra de la Arena	NAN 30.648.498
	Miren Irigoien Aizarna	NAN 15.987.688
	Iñigo Urrutia Libarona	NAN 30.596.280
	Iñaki Frieria Urbistondo	NAN 22.721.195

BIGARRENA: EUSKAL KULTURAREN BATZARREA-EKBko egoitzak Euskal Autonomi Elkartean eta Nafarroan zabaltzea.

Donostian:	Baleazaleen kalea 12 - 1.A	20011 DONOSTIA
Bizkaian:	Zabalburu Enparantza, 2 - 1.Ezk.	48003 BILBO
Arabian:	Kutxilleria, 62	01001 GASTEIZ
Nafarroan:	Antsoleaga 9 - 11, behe	31001 IRUÑEA



HIRUGARRENA: Otsailaren 12ko 3/88 Legearen 12.1.b atalaren arabera aurreko akordioak Eusko Jaurlaritzako Zuzentza Sailordetzako Elkarte Erroldari adieraztea, bertan jasota gera dadin.

Eta dagozkion ondorioetarako honela erasota gera dadin, ziurtagiri hau luzatzen da Donostian, 1995eko apirilaren 7an


IDAZKARI Nagusia




LEHENENGO ATALBURUA-XEDAPEN OROKORRAK

1 Atala: Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB, bere baitan integraturik dauden, edota egon daitezkeen, euskaingintzaren eta euskal kulturgintzaren alorrean diharduten Elkarte, Federazio eta gainera, pertsona fisiko osoturiko irabaz asmorik gabeko Elkartea da.

2. Atala: Euskal Kulturaren Batzarrea-EKBk Estatutu
honen arabera jokatuko du eta bertan azaltzen ez denari buruz, 1.988ko otsailaren 12ko
Elkarteei buruzko 3. Legeak dioenera, Euskal Autonomi Estatutuaren 9. atalak dioenera
eta 1.964ko abenduaren 24ko Elkarteen Legeak agindutakora dago.

3. Atala: Euskal Herrian euskararen berreskurapena lortzea helmugatzat edukiz, *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB*ren helburu nagusia, xede sozial bera duten Elkarte eta erakundeen bateragune izanez, hauek sustatzea eta hauen ahaleginak koordinatzen eta optimizatzen laguntzea da; elkarren arteko iharduera bateratuak bideratuz, zerbitzu amankomunak antolatuz eta erakunde publiko eta sozialen arteko elkarlana bultzatuz.

Horretarako honoko hauek ditu eginkizun:



- ## FUNTZIONAMENDUA

Erakunde partaideen arteko adostasuna eta elkarlanarekiko atxekimendua izango dira *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB*aren funtzionamenduaren oinarriak.

guztiz

6. Atala: *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB*
helbidea Donostiako Baleazaleen kalea 12-1. izango da.


7. Atala: *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB* berriak herria izango du bere iharduerarako eremua.

Euskal

8. Atala: *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB* iraupen
mugagabea izango du. Konfederazioa, Ohiz kanpoko Nazio Batzordearen erabaki bidez
desegin ahal izango da soilik, VI. Atalburuan esaten den bezala, edo legeetan jasotako
arrazoien batengatik.



BIGARREN ATALBURUA-GOBERNU ORGANOEI BURUZ



9. Atala: Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB
Gobernu eta Administrazio Organoak dira:

- Kongresu Nazionala.
- Nazio Batzordea.
- Batzorde Iraunkorra.
- Herrialde Batzordeak.
- Lehendakaria.
- Idazkari Nagusia.
- Diruzaina.

KONGRESU NAZIONALA

10. Atala: Kongresu Nazionala, organu erabakiorra izan ez arren, *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB* ren estrategia eta iharduera ardatzak aztertu eta ezatabaidatuko dituen organua da, erizpide norabideragarriak emango dituelarik.

NAZIO BATZORDEA

11. Atala: Nazio Batzordea Lehendakariak, Idazkari Orokorrak, Bazkide Osoak diren erakundeetako ordezkariak eta Bazkide Bereziak osatzen dute, azken hauek boto eskubiderik gabe. Nazio Batzordeak ohizko bilerak eta bilera bereziak egingo ditu.

12. atala: Nazio Batzordearen bilera gutxienez urtean behin egin beharko da, ikasturtearen lehen hiruhilabetekoan izango da eta besteren artean honako puntuok erabiliko ditu:

- 1.- Kongresu Nazionalak ezarritako erizpide eta iharduera ardatzak garatuz, urte-urteko egitasmoak eztabaidatu eta onartzea.
- 2.- Urteko balantzeak eta aurrekontuak onartzea.
- 3.- Dagokionean Lehendakaria, Idazkari Orokorra eta Batzorde Iraunkorreko kideak izendatu, eta Herrialde Batzordeek hautaturiko ordezkariak onespina ematea.

13. Atala: Aurreko atalean jasotakoaren kaltetan gabe, Nazio Batzordeak du ondoko erabakiak hartzeko ahalmena:

- a) Estatutuak aldatzekoa, hurrengo atalean zehaztuko denaren arabera.
- b) Elkartea desgitekoa, hala dagokionean.



14. Atala: Nazio Batzordea Batzorde Iraunkorrak erabakitakoan bilduko da bilkura berezian, bere kabuz edota Bazkide Osoen ehuneko hogeitabostak eskatuta. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dituzte. Dena dela, bi gai hauek aztertzeko Nazio Batzordearen bilkura berezia nahitaezkoa izango da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Elkartea desegiteko.

15. Atala: Nazio Batzorderako deiak, nahiz ohizkoak nahiz bereziak, idatziz egin beharko dira, eta bilera tokia, eguna, ordua eta gai ordena azaldu.

16. Atala: Nazio Batzordeak, bai ohizkoak eta bai bereziak, balioz osoturik geldituko dira lehenengo deialdian, partaideen erdia baino gehiago bertaratuz. Orduerdi barruko bigarren deialdia balioz osoturik gelditzeko berriz, ez da nahitaezko kopururik egongo.

BATZORDE IRAUNKORRA

17. Atala: Batzorde Iraunkorra honoko hauek osotuko dute:

- Lehendakariak
- Idazkari Orokorrak
- Herrialde Batzordeetako ordezkariak
- Bokalek. Bokalak Nazio Batzordeak aukeratuko ditu. Bokal hauek bazkide osoak diren erakundeetako partaide baldin badira ere, ez dira erakunde horretako ordezkariak izango, bere gaitasunagatik Batzorde Iraunkorrean lan egiteko aukeratutako kideak baizik.

Batzorde Iraunkorraren bileretako burua Lehendakaria izango da; eta bera bertan izan ezean, bere ordezkoren bat izendatuko du: Idazkari Nagusia edo Batzordeko besteren bat.

18. Atala: Gutxienez bi hilabetero bilduko da eta horrez gain, elkartearen ekintzak bideratzeko beharrezkoa den hainbat alditan.

19. Atala: Batzorde Iraunkorraren betebeharrak hauek dira:

- 1.- Nazio Batzordeak harturiko erabakiak gauzatzea eta jarraipena egitea.
- 2.- Nazio Batzordearen bileretako aztergai-zerrenda egitea, eta Nazio Batzorde ohizko edo berezien deialdien data eta modua erabakitzea.
- 3.- Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horretarako behar diren neurriak hartzea.
- 4.- Langileen kontratazioan dagozkion erabakiak hartzea.
- 5.- Kongresu Nazionalak eta Nazio Batzordeak berariz esleitura ez duen beste edozein



eginkizun.

20. Atala: Iraunkorkide guztien erdiek beharko dute bertan izan Batzordea balioz osoturik egon dadin, eta erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak onartu beharko ditu.

21. Atala: Herrialde Batzordeak horretarako beharrak eta baldintzak sortzen diren herrialdeetan antolatuko dira; ez, beraz, nahitanahiez herrialde guztietan.

Batzorde Iraunkorrerako aukeraturiko ordezkaria Nazio Batzordeari aurkeztuko diote eta organu honek emango dio onespena.

Funtzionamendurako araupide propioa eratuko dute.

LEHENDAKARIA

22. Atala: Lehendakariak EKBren legezko ordezkapena bere gain du eta honen martxaren arduradun izango da. Gainera, beste eginkizun hauek dagozkie:

- a.- Kongresu Nazionala, Nazio Batzordea eta Batzorde Iraunkorrerako deiak egitea, hiaen mahaiburuarena egitea, bilkura horietako gaien ordena ezartzea eta bukatutzat ematea.
- b.- Kongresu Nazionala, Nazio Batzordea eta Batzorde Iraunkorrerako bilkura-aktak bere sinaduraz onartzea.
- d.- Idazkari Orokorraren gestioaren jarraipena (eta kontrola).
- e.- Gobernu-organismoek bere eskuetan uzten dituzten beste eginkizun guztiak.

23. Atala: Lehendakari karguak bi urteko iraupena izango du eta aurreko Lehendakaria berrizendatu ahal zango da.


IDAZKARI NAGUSIA

24. Atala: Idazkari Nagusia *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB* ren gestio eta administrazioaz arduratuko da. Honako eginkizun hauek dagozkie:

- a.- Lehendakariari laguntza ematea eta honen ordezkari izatea heriotzez, erialdiz, dimisioz, edo beste edozein aldibaterako ezintasunen aurrean.
- b.- Elkartearen akta-liburuez, bazkide-erregistroaz eta Kongresu Nazionalan, Nazio Batzordetan eta Batzorde Iraunkorrean ezarritako jokabideak bete arazteaz arduratuko da.
- d.- *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB* ren baitan lanean ari den bulegoen funtzionamenduaz eta *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB*



Lehendakariak espresuki bere eskuetan uzten dituen bestelako eginkizunak.



25. Atala: Idazkari Nagusiaren karguak bi urteko iraupena izango du, eta aurreko Idazkari Nagusia berrizendatu ahal izango da.

26. Atala: Diruzaina gestio ekonomikoaz eta kontabilitateaz arduratuko da. Egindako sarrera eta ordainketen, diru sarrera eta gastuen urteroko aurrekontuen eta aurreko urteko kontuen berri emango du. Guzti horiek Batzorde Iraunkorrean eta Nazio Batzordean aurkeztu beharko ditu, Nazio Batzordean aurkeztu beharko ditu, Nazio Batzordeak onar ditzan.

HIRUGARREN ATALBURUA-FUNTZIONAMENDUARI BURUZ

27. Atala: Ezarrita dituen helburuak eskuratzeko bidean, Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB-k bere barne funtzionamendu onena lortzen lagunduko duen zenbait Lan Batzorde eratuko du. Lan Batzorde hauek iraunkorrak edo aldibaterakoak izan daitezke.

Lan Batzorde Iraunkorrek dira, besteren artean:

- Nazioarteko Harremanetarako Batzordea.
- Argitalpen Batzordea.

Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB- . ko partaide diren sail bereko erakundeek osatzen duten bilkura Lan Batzordietzat hartuko da, Federazio edota bestelako egitura sortzen ez duten bitartean.

28. Atala: Barne funtzionamenduari begira ere, Euskal Kulturaren Batzarreak-EKB-
k langileak edota beste entrepresen zerbitzuak
kontratatu ahal izango ditu.

LAUGARRËN ATALBURUA-BAZKIDEEI BURUZ

29. Atala: Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB-k maila
ezberdineko bazkidetak ezagutuko ditu:

- Bazkide Osoak
- Bazkide Bereziak
- Bazkide Erabiltzaileak



BAZKIDE OSOAK

30. Atala: Bazkidetza egin nahi duenak, Batzorde Iraunkorrari sarrera eskatuko dio bazkide-orria idatziz. *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB-*ren Bazkide Osoak euskaigintza edota euskal kulturgintzan diharduten elkarte eta federazioak izango dira.

Bazkide Osoak eskubide eta partaidetza osoko bazkideak izango dira.

31. Atala: Bazkide Osoen eskubideak honoko hauek dira:

- a.- Kongresu Nazionalean eta Nazio Batzordean bozez eta botoz parte hartzeko eskubidea.
- b.- Estatutuen arabera, *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB-*ren kargu zuzentzaileetarako hautagai zuzentzaileetarako hautagai nahiz hautesle izatekoa.
- d.- *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB-*ren martxaz eta ekintzez informatua egotea, eta talde-ekintzetan parte hartzekoa.
- e.- *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB-* k antolatuko dituen kultur zerbitzuez gozatzea eta antola litzakeen tankera horretako ekintzetan parte hartzea.
- f.- *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB-*rekiko interesak iradokitzen dizkien eta bere ustez Nazio Batzarrean tratatu beharrezkoak diren iniziatibak edo gaiak Batzorde Iraunkorrari proposatzea.
- g.- Elkarte Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta iharduketak aurkatzea.
- h.- Diru sarrerak eta gastu kontuen egoera, eta ekintzen garapenaren berri uneoro jakitea.
- i.- Bazkide zerendan agertzea.
- j.- *Nahi dutenean Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB-*uztea, barne-araudiak ezarritako moduan.

32. Atala: Bazkide Osoen betebeharrak honako hauek dira:

- a.- Konfederakundearen helburuak betetzen laguntzea.
- b.- Konfederakundearen sostengu ekonomikoan laguntzea.

BAZKIDE BEREZIAK

33. Atala: Bazkide Bereziak Batzorde Iraunkorraren proposamenez izendatuak, pertsona fisiko edo erakundeak izan daitezke, eta euskaigintza eta euskal kulturgintza munduan duten itzala kontutan hartuz proposatuko dira.

Bazkide Berezien funtzioa Euskal Kulturaren Batzarraren ardatzak eta egin beharrezkoak finkatzen laguntzeko bere aholkuak ematea izango da.



Bazkide Berezia izan daiteke, baita ere, bere borondatez *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB*-ekonomikoki edota lan aportazioz laguntzen duen pertsona fisiko eta erakunde oro.

EKBko Lan Batzordeetan parte hartzen duten pertsonak Bazkide Berezien estatusa eskuratuko dute.

Bazkide Bereziek ez dute partaidetza osoa ez eta, beraz, botoa ematerik eta kargurik betetzerik ez dago.

34. Atala: Bazkide Berezien eskubideak honako hauek dira:

- a.- Kongresu Nazionalean eta Nazio Batzordean parte hartzea, botorik gabe.
- b.- *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB*-ren iharduera eta egitasmoetaz informatuak izatekoa.
- d.- *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB*-ren zerbitzuak erabiltzekoa.

BAZKIDE ERABILTZAILEAK

35. Atala: Bazkide Osoa edota Bazkide Berezia ez den erakunde eta bestelako edozein pertsona izan daiteke *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB*-ko Bazkide erabiltzailea.

Bazkide Erabiltzaileek *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB*-ren zerbitzu guztiak erabiltzeko eskubidea izango dute, urteko kuota baten truke.

Informazioa jasotzeko eta Kongresu Nazionalean parte hartzeko eskubidea ere izango dute, beti ere botorik gabe.

BOSTGARREN ATALBURUA-EKONOMIA

36. Atala: *Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB*-k ez du sortze-ondararik.

37. Atala: *Euskal kulturaren Batzarrea-EKB*-k, bere ekintzak aurrera eramateko, honako diru baliabide hauek izan ditzake:

- a.- Nazio Batzordeak erabakitako aldizkako kuotak.
- b.- Bere helburuak betetzeko, zilegiro lortzen dituen ekarpen-subentzio, emaitza, jarauntzi eta ondorengoak.
- d.- Bere ondasunen etekin, errenta eta ineresak.



e.-

Garatzen dituen kultur zerbitzuen ekoizpena, bere argitalpen-lanaren bidezkoa edota legozkiokkeen ondarezko beste sarrerena.



38. Atala: Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB-

eskuratu eta eduki ditzake era guztietako ondasunak eta eskubideak eta iragarritako helburuetako eta honetarako hartutako betebeharrak zilegiak konplitzeko bakarrik erabil ditzake.

SEIGARREN ATALBURUA-ESTATUTUEN ALDAKETA

39. Atala: Nazio Batzordearen ekimenez hasiko da Estatutuen aldaketarako prozedura. Honek hiru batzordekidez osaturiko lan talde bat izendatuko du aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo horrek Nazio Batzordeak ezarritako aztertarauari jarraitu beharko die eta Batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

40. Atala: Aldaketa/egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, Lehendakariak egingo den lehenengo Batzorde Iraunkorraren aztergai zerrendan sartuko du. Iraunkorrak egitasmoa onartu eta berriz lan/taldeari itzuliko dio azter dezan.

Egitasmoa onartuz gero, Batzorde iraunkorrak hurrengo Nazio Batzordean sartzea erabakiko du edo horretarako propio bilererako deia egitea.

41. Atala: Nazio Batzorderako dei eta gai-ordenarekin batera, Estatutuen aldaketen testua bidaliko da, batzordekideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketa-proposamenak idazkari orokorrari igorri diezazkieten; honek lan/taldeari jakineraziko dizkio. Proposamena Nazio Batzordea bildu baino zortzi egun aurretik jaso beharko lituzke idazkari Orokorrak.

ZAZPIGARREN ATALBURUA-KONFEDERAZIOAREN DESEGITEA

42. Atala: Konfederazioa honako arrazoi hauengatik desegingo da:

- a.- Bazkideen nahiaz. Nahi horretarako bilduriko Nazio Batzordean azaldu beharko da eta bildutakoen gehiengoak jaso beharko du.
- b.- Kode Zibilaren 39. atalean aurreikusten diren arrazoiegatik.
- d.- Epai bidez.

43. Atala: Konfederazioa deseginez gero, Nazio Batzordeak lau bazkidek osaturiko kitapen-Batzordea izendatuko du, inbentarioa egiteko eta Konfederakundearen eskubideak eta betebeharrak baloratzeko eta likidatzeko.



Bazkideekiko eta besterekiko Konfederakundearen zorrak ordaindu ondoren, geratzen den elkartearen ondarea, geratzen bada behintzat, azken Nazio Batzordeak erabakiko du noren esku utzi.

AZKEN ERABAKIAK

LEHENENGOA: Batzorde Iraunkorra izango da Estatu hauetan azaltzen diren aginduak ulertarazi eta Estatutu horien hutsuneak beteko dituen ihardute-sail aginpideduna, Elkarteei buruz indarrean dauden legezko araupean beti, eta Nazio Batzordeari, denaren berri emanaz, onar dezan.

BIGARRENA: Estatutu hauek Batzorde Iraunkorrak, Nazio Batzordeak eta Kongresu Nazionalak bakoitzak berari dagokion aginpide-esparruan, balioz hartzen dituzten erabaki bidez aldatuko dira, bostgarren atalean oharmandakoarekin bat etoririk.

HIRUGARRENA: Estatutu hauek garatzeko asmoz, gobernu organoen funtzionamendu eta bazkideen partaidetzari buruzko Barne-Araudi bat onartu ahal izango da. Horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetako aginduk aldatuko.

Lehendakaria

Idazkari Nagusia

Estatutuak ikustatu ondoren, Elkartearen Errolde Nagusia sortuazle den Eusko Jaurlaritzaren, Martxoaren 77/1986 Dekretuan eta honi datuozkion gainontzeko manuetan ere zehaztutako ondorioetarako.

Visados los presentes Estatutos, a los efectos determinados en el Decreto 77/1986, de 25 de Marzo, del Gobierno Vasco, por el que se crea el Registro General de Asociaciones y demás normativa concordante

DONOSTIA (en) 4 JUN. 1993
6/3945/93

En a

ERRORI DEKO ARDURADUNA

EL ENCARGADO DEL REGISTRO

